

## VITAL FUNDAZIOAREN ERAKUSKETA ARETO BATEN LAGAPENERAKO BALDINTZA LABURPENA

1. Vital Fundazioaren helburuetako bat hainbat artista eta kolektibori euren lanaren edo egitasmokulturalen hedapenean laguntza ematea da, lan horiek erakusketa batean antolatu eta publikoari erakutsi nahi badizkiote.
2. Vital Fundazioak erakutsiko den egitasmoa aztertuko du eta zenbait alderdi hartuko ditu aintzat, hala nola kalitate mailak, nola egin den eta Fundazioaren egitasmokulturalak eskatzen dituen publikoaren interesa. Eskaera onartzen denean, Vital Fundazioak, lehen mailako erakusketa eremua jarriko du eskatzailearen eskura, hirigunekoa, egunero irekitzen dena, baita igandeetan eta jaiegunetan ere.
3. Aipatutako Erakusketa Aretoaren mantenu-gastuak, erakustaldiak irauten duen epealdian, Vital Fundazioak ordainduko ditu oso-osoan. Lanen garraioa, muntaia egitea eta kentzea eta erakusketaren mantenu gastuak, ordea, lagatzailearen kontura eta kargura izango dira.
4. Erakusketa publikoarentzat zabaldu eta ixteko ordutegia Vital Fundazioak finkatu ohi duena izango da, hau da, 18,00etatik 20,30era lanegunetan eta 12,00etatik 14,00etara eta 18,00etatik 20,30era igande eta jaiegunetan. Fundazioak aldatu egin dezake ordutegi hori, zerbitzu beharrianen ondorioz.
5. Vital Fundazioak egoki irizten dion eran alda dezake lagapen-epealdia edo erabat ezeztatu dezake, aldez aurretik erakusketariari jakinarazita, 15 eguneko aurre-abisuaz. Aurre-abisua egitea salbuetsita geratuko da arrazoia ezinbestekoa bada edo ezustekoa.
6. Lagatzaileak suteetarako, lapurretetarako, apurketetarako edo kalteetarako aseguru-poliza kontratatu behar du, bere kontura. Aseguru horrek ikusgai dagoen obra osoaren balioa estaliko du, kontratu honek dirauen bitartean, garraio eta paketatzea kentzen zaion unetik, berriro paketatuta eta itzuli arte, erantzukizun horiek lagatzaileak hartu behar baititu bere gain.
7. Behin antolatuta erakusketak izango duen maila erakusketa aretoetarako ezarritako kalitate parametroekin bat etor dadin, Vital Fundazioaren irizpidea izango da zenbat lan erakutsiko diren eta horien banaketa.
8. Lagatzaileak erakutsiko diren lanak behar bezala muntatuta aurkeztu beharko ditu, muntaia eta erakusketa optimoa erraztuko dituen

euskarri baten gainean. Lan horrek sortzen dituen gastuak lagatzailearen kontura dira.

9. Erakusten ari diren lanek edo piezek identifikazio txartelik, testurik edo azalpen-panelik behar izanez gero, erakusketariaren kontura izango dira horien ekoizpena eta kostua.
10. Vital Fundazioak erakusketako obra bat aukeratuko du, erakusketa inauguratu baino lehen. Lagatzaileak, lagapenaren izaera kontuan hartuta, Vital Fundazioari lagako dio dohaintzan aukeratutako lana, eta hortik aurrera aipatutako erakundearen jabetzakoa izango da.
11. Artistak lagatako lanak behar bezala sinatuta egon beharko du, eta erakusketarako zituen euskarri eta baldintza berberak izan behar ditu.
12. Vital Fundazioak beretzat gorde ditu dohaintzan jasotako lanaren edizio eta erreprodukzio eskubide guztiak, eta lana nork egin duen aipatuko du.
13. Vital Fundazioak artistaren eskuko txartel handia editatuko du erakusketarako. Lagatzaileak beharrezko materiala igortzeko konpromisoa hartu du, beharrezko aurretiaz, irudiak eta aipatutako publikazioan sartu nahi duen testua, eta fundazioak, aipatutako testua laburtzeko eskubidea du.
14. Lagatzaileak komunikazio kanalak erabili nahi izango balitu bere lanaren sustapenerako, baliabide grafikoak, nahiz idatziak, sare sozialak, irratia, telebista edo argitalpenak (kartelak, postalak, txartel handiak, foiletoak, e.a.) Vital Fundazioaren baimena beharko du aldeztatik eta Fundazioaren marka sartu beharko du, erabiltzen den edozein publizitate euskarritan. Komunikazio horretatik eratorritako gastuak lagatzaileak ordaindu beharko ditu.
15. Erakusketa Aretoa ez da arte galeria ezta eremu komertziala ere, beraz, lagatzaileak, ezin dezake bere lana saldu bertan. Era berean, erakusketa eremuan ezin dezake prezio zerrendarik zabaldu, ez zerrenda eran ezta pieza bakoitzari prezioa jarrita ere. ERABAT DEBEKATUTA DAGO LANEN SALMENTA EDO TRANSAKZIOA ERAKUSKETA EREMU HONEN BARRUAN.